


Erreportaia Elizako lanak apirilean hasiko dira
Sutondoan Amiama psikologoarekin autoestimaz berbetan

pitpilean

SORALUZEKO
HAMABOSTEKARIA
127. alea, 2006ko
otsailaren 10ean

Elurra kaleraino





**Tornileria-estanzazioa
eta
extruzioa hotzean**

GOL

GOL industriak S.A.
Sagar Erreka, 19 45 PK
Telefona: 34 943 75 21 00
Faxa: 34 943 75 17 12
20590 SORALUZE

SOMABE

**MAKINA BEREZIAK
LERRA AUTOMATIKOAK
ESTANKOTASUNAREN KONTROLA**



SORALUZE MAKINA BEREZIAK S.L.L.
Mendiola industrialdea, 14-5 • Tel. 943 75 18 91 • SORALUZE



MARI CARMEN LARRANAGA

Bai eskolak euskalduntzeari

Aurki BAI ESKOLAK EUSKALDUNTZEARI sinadura kanpaina abian jarriko da. Hainbatek ez du ulertuko, zer dela eta horrenbeste zarata eta zalaparta, ez al dute ba eskola guztietan euskaraz irakasten? Zur eta lur gera gintezke kaleratu diren datuekin.

EAEko legediaren arabera hiru herrialdetako gazte guztiek, hau da Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan, derrigorrezko ikasketak bukatzerakoan, bi hizkuntza ofizialak menperatu behar dituzte. Ba Hezkuntza Sailak eginiko azterketen emaitzek frogatzen dute hori ez dela inolaz ere betetzen, euskarari dagokionez, noski; gaztelania, guzti-guztiek menperatzen baitute: A ereduko ikasle guzti-guztiek, B ereduko hiru ikasletik bik, eta D ereduko hiru ikasletik batek ez dute gaintitzen. Hau da : 0 eta 18 urte bitarteko euskal ikasleen %38ak soilik du euskalduntzeko aukera. Baina euskalduntutako horietako askok euskaraz normaltasun osoz aritzeko zailtasunak izango dituzte: lanbide heziketan eta unibertsitatean euskarazko eskaintza murrizta delako, edo bizi diren eskualdean euskararen presentzia murrizta delako (euskara gizartean bigarren mailan dago) edo administrazioek oztupoak jartzen dituztelako (Nafarroa hiru zatitan banatuta hegoaldean euskaraz ikastea debekatuta; Behe Nafarroa, Lapurdi edo Zuberoan Frantziako Gobernuak euskara desagerrarazteko politikarekin jarraitu du). Sare publikoan Euskarazko irakaskuntza emateko baimenik eman ez eta bestalde ikastolei hainbat oztupo jarri.

Aipatutako diagnostikoaren aurrean Gasteizko Parlamentuak erabaki du 2007rako lege berria egingo duela. Pozgarria benetan Euskara Euskal Herriko berezko hizkuntza dela kontuan hartuz, oinarrizko eskubidea da hura ezagutzea eta erabiltzea, eskolak eskubide horren bermerako tresna izan behar du. Orain arteko hizkuntza ereduak aldatzeko Euskal Herri osorako neurriak beharrezkoak dira euskara ikaskuntza eta harreman hizkuntza eta kultur garapen normalizatua izan dadin.

Eskolak Euskaldundu plataformaren helburua, Institutio desberdinen aurrean, eskola guztietan euskararen ezagutza indartzea eta bermatzearena da; eta era berean, guztion partehartzea eta konpromisoa eskatzea gure hizkuntzaren aurrean.

Telegrapak

Edur t' erdi zuri bat irakurle. **Stop.** zer moduzkoa doia negua?. **Stop.** nun harrapatu zaittu edurtiak?. **Stop.** barixakuan bidian eta zapatuan etxian?. **Stop.** badago diferentzia pixkat batetik bestera. **Stop.** barixakuan desesperaziñua eragitten zebanak, zapatuan gozamina!. **Stop.** edurra be erlatibua da beraz. **Stop.** Jainkua-ren existentzia moduan. **Stop.** batzuen-dako sakratua da eta beste batzuen-dako ez existitzen. **Stop.** sinestunak bai, existitzen dira eta eliza edar askuak bebai. **Stop.** Soraluzeko mezkita esaterako. **Stop.** ez da erreza mantentzeko baina halako tenpluagaitik merezi dau ahalegina egittiak. **Stop.** nahiz eta santu garbiketa horrek... **Stop.** ez diran oso santuak eh... **Stop.** lasai, broma da... **Stop.** oin urte batzuk pekatu latza izango zan baina... **Stop.** ai Jaungoikua... **Stop.** nora begira zare binaaa?. **Stop.** Euskal Herriko ume-rik erdixak euskeraz ikasi barik. **Stop.** 18/98 makrosumarixua poliki poliki aurrrera... **Stop.** Sora lehenengo mailara bueltatu ezinda... **Stop.** baina badira autostima jasotzeko notiziak be. **Stop.** bi lanpostu berri Udaletxian. **Stop.** Udalaren eta txarangiaren arteko elkarlana. **Stop.** Sabini 20.000 euroak bueltatzeko ekimenak. **Stop.** eta hori gutxi balitz, Aratustiak ate joka. **Stop.** zertaz jantzi geinke. **Stop.** payasoz?. **Stop.** zorroz?. **Stop.** zaldunez agian?. **Stop.** zeinek daki. **Stop.** sorpresa izango da zapatu eta martitzen-nerarte. **Stop.** martitzenian be urten eh!. **Stop.** eskatu jai eguazten goizian eta bizi!



Argitaratzailea:
Pil-pilean Kultura Elkartea
Frontoi kalea 5. behe, PK 27 - 20590 Sorluze
Telefonia 943 75 13 04
comunidad: kzgunea.net/PilPileanKulturaElkartea/EU
E-mail: pilpilean@euskalnet.net

Erredakzio burua: Egoitz Unamuno
Erredaktoreak: Jon Basauri, Xuban Catalan, Ugaitz Catalan, Aitor Madrid, Eduardo Pombar, Eneko Beretxinaga, Gorka Salaberria eta Egoitz Unamuno

Publizitatea: Ugaitz Catalan
Logotipoa: Jon Gabilondo
Banaketa: Pil-pilean Ekoizpena: 1.920 ale
Inprimategia: Gertu Koop.
Diseinua eta maketazioa: BOROBILE Zerbitzu Grafikoak
I.Z.K.-a: G20696563 Lege-gordailua: SS-537-2.000

Pil-Pilean Kultura Elkarreak ez du bere gain hartzen aldizkariaren esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



SORALUZKO UDALA




EUSKO JAURLARITZA



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

ERREPORTAIA

Apirila maiatza aldean hasiko dira Andra Maria Zerurtze elizako zaharberitze lanak. Barrukaldeko lanak direnez batez ere, itxita egongo da eliza, urte betez gitxienez.



Zorion agurrak



Etor Ezenarro

Otsailaren 5ian, urtebete
Hain txikia eta hain handia,
gizontxo bat eginda ia-ia,
zorionak Etor txo maitia!



Marina Gil

Otsailaren 13an, 3 urte
Zorionak maitia!
Laztan mordo bat familixian
partez



Marta Ayora

Otsailaren 15ian, 11 urte
Zorionak polit hori!
Musutxuak etxekuen partez

Joxe Lizarralde

Maddalen Zubizarreta

Otsailaren 9an, urrezko ezteiak
Zorionak aitxitxa eta amama,
segi holaxe!



Lore Murgizu

Otsailaren 3an, 2 urte

Amaia Bedaio

Otsailaren 18an, 33 urte

Jon Ander Bedaio

Otsailaren 18an, 4 urte
Zorionak hiruroi! Ondo pasau, etxekuen partez!



Zaloa Azkoitia

Otsailaren 13an, 30 urte
Zorionak Zaloa, zabalduko
dogu sagardotegi bat?
Txooxt! Kuadrilakuen partez!



Eneko Perez

Otsailaren 19an
Zorionak eta muxu haundi
bat etxeko guztien partez

Gutunak

Euskal Herrian Euskarazek behar zaitu

Euskal Herria euskaraz eraikitzen ari gara, Euskal Herri euskaldun batean bizitzeko eskubidea eta nahia dugulako. Oztopo asko ditugu ordea, herri mugimendutik sortu ditugun tresnak deusezten dizkigute, (egunkariaren itxiera, Martin Ugalde parkearen aurkako operazioa, atxiloketak) eraso polizia-judizialak eguraldia oso beltz jarri digute.

Eman diren eta emango diren erasoak ezin dira modu isolatu batean ulertu, etsaiaren suntsitze estrategiaren barruan baizik. Euskaldunok herria eraikitzen emandako urratsak igarri dituzte, horrek ematen die beldur eta euskalgintza geratu nahi dute. Honela jarraituz gure eskubideak eskuratuko ditugula ikusi dute, oztopoz-oztopo aurrera egiten dugula, kolpe bakoitza eta gero, jeikitzen garena.

Erasoa ez da hori soilik, egunero gure larruan bizitzen dugun hizkuntza zapalkuntza, ezin euskaraz egin osasun etxean, epaitegian, lanean, eskolak ez ditu haurren bi herenak euskalduntzen, euskararentzat bost legedi ezberdin ditugu.

Egoera zaila da, baina hor jarraitzen

dugu gure eskubideen alde zutik,
EUSKARAREN ERASOEN AURREAN TINKO AGERTZEKO.

EUSKAL HERRI EUSKALDUNAREN ALDE URRATSAK EMATEKO OFIZIALITASUNA LURRALDE OSOAN LOR DADIN ERAGITEKO.

HAUR GUZTIAK ESKOLAREN BIDEZ EUSKALDUNTZEKO.

HERRI MUGIMENDU SENDO ETA ERAGINKORRA IZATEKO BEHARRERZKOAK DELAKO.

Honela hau aurrera eramateko zure laguntza behar dugu, zure ekarpen ekonomikoa, herri mugimendu izanik, geuk sortutako iturriez bizi baikara, instituzioen laguntzarik gabe. Zure laguntza ekonomikoa ezinbeztekoa delako euskararen normalizazioa eta dagozkigun eskubideak lortzeko.

EGIN ZAITEZ BAZKIDE!

Soraluzeko
Euskal Herrian Euskaraz



Informazio gehiago
900 110 111 doako telefonoan
www.gipuzkoa.net/gazteria
Buletinen harpidetza !!!

Bekak

Jose Migel Barandiaran Ikerketa Beka Barandiaran Fundazioa.

Beka hau jaso dezakete pertsona indibidualak nahiz helburu horretarako osatutako lan-taldeak. Bigarren kasu horretan taldeak proiektuaren zuzendariduradun bat izan behar du ordezkari. Bi urteko epea. **Diru-laguntza:** 14.500,00 euro: 2.000,00 euroko lau partida eta 6.500,00 euroko partida bat. 2006ko deialdi honi dagokion beka ikerketa arkeologikorako izango da. **Epea:** 2006-02-28. Telefonoa: 94514 30 66.

Ekintzak

Arkitektura eta Argazkigintza

Photomuseum Argazki Euskal Museoa. 2006ko otsailaren 18an. 10:00etan. Marie-Loup Sougez. "Arkitektura eta Argazkigintza arte honen hastapenetan". 11:15etan. Javier Puldain-"Álvaro Siza: Arrazionalismotik abiatuta". 12:30etan. Miguel Fernández - "Günther Förg eta Arkitektura". **Epea:** 2006-02-18 (plaza mugatuak) Telefonoa: 943 13 09 06.

Ikastaroak

Funky ikastaroa Azkoitian

Azkoitiko Gazteentzako Informazio Bulegoa. 13 urtetik gorakoak. 2006ko otsailean, martxoan eta apirilean. FUNKY eta HIP HOPEko ikastaroa. Telefonoa: 943 02 60 27.

Iragarkiak

- **Etxe berri eta amueblatua** alokatzen da. Rabal kalean. Tlf: 600 05 57 59 / 658 33 97 09.
- **Sukaldeko mahaia eta 4 aulki** salgai, neurria: 110x70, prezioa 100 euro. Tlf: 649 48 35 51.

Jaiotakoak

ALAIN LÓPEZ PELLITERO
LANDER FERNÁNDEZ DE MARURI
ATIENZA

Hildakoak

LUIS MARI BOLUMBURU UNAMUNO

Zer irizten dotsazu?


Danimarka eta Norvegiako zenbait egunkaritan kaleratutako karikaturen auziak haserre handia piztu du Islamaren jarraitzaileen artean. Azken egunetan protesta handi eta gogorak izan dira Islamak indarra duen munduko herrialde askotan.

Ze iritzi daukazu Mahomaren karikaturekin piztu den auziaz?



Nerea Orbea
35 urte, hezitzailea

Nik uste gauzak tokiz kanpo etara dirala, ez litzake hainbeste astorau biharko holako gauza bategaittik. Jentia errespetuz tratau biharko genduke danok eta baita euren eritzixak be.




Bittor Nuñez
19 urte, ikaslia

Problema erlijiosua eta politikua izan dala argi daukat. Egixa da, holako karikatura bat egittiak adibidez, hasarretzeko motibuak emoten dittuala, baina hala be gehixegizkuak pentsatzen jataz euki dittuan ondorixuak.



Iñigo Urizar
14 urte, ikaslia

Gehixegikua iruditzen jata, nahiz eta Mahoma erlijio bateko profetia izan, jarri diran moduan jartzia ez da normalena. Nik ez dot uste egoitzak erretzeko... moduko gauzia izan danik.



Iruñe Odriozola
15 urte, ikaslia

Ikaragarrixa da marrazki batzuegaittik hola jartzia. Eta nik uste dot, kasu honetan kontrajarritta darella sinismena eta adierazpen askatasuna. Hasiera batian auzixa erlijiosua izan bazan be, oin politikua da.



Ana Sebal
42 urte, sukaldaria

Fundamentalismo danekin pasatzen dan berdina pasau da, larregikerixak. Problema bai erlijiosua eta baita politikua be izan dala pentsatzen jata, eta gainera uste dot oso konponbide zaila dakala honen danak.



Gonzalo Portu
49 urte, enkargaua

Zoratuta dare danak. Argi dao erlijiosua dala auzixa. Nere ustetan erlijioa dala eta burua janda dauke eta horregaittik pasatzen dia holako gauzak. Gainera oso konponbide zaila daukala ikusten dot.

KREA

Barruko Arkitektura eta Dekorazioa

AINHOA LETE IRASUEGI
Tel.: 635731268



**Karta enkarguz,
jaunartzeak
eta bataioak**

EDURTZA Kafetegia
Taberna eta jatetxe zerbitzua

Telf. 943 75 13 83 Santa Ana Soraluze



KALERAINOKO ELURTEA. Urtarrilaren 27an hasita kalerainoko elurtea bota zuen, aspaldiko handiena. Ondorengo egunetan elurra urtu barik izan zen herriko kaleetan. Udaltzain gehienak bajan zirela-eta gatza botatzeko zerbitzua urria izan zen lehenengo egunean.

Udalak bi lanpostu berri sortuko ditu asteotan



Datozen asteetan argitaratuko dira boletin ofizialean Udalak lehiaketara aterako dituen bi lanpostu berriak. Bata, erdi mailako kontabilitateko teknikari lanpostua izango da eta bestea etxez-etxeko laguntzailearena. Kontabilitateko teknikari plazagaitik lehiatzeko, diplomatura eskatuko da eta B zailtasun mailako 3 azterketa eta euskarazko laugarren bat egingo dira. Guztira, 60 gai. Lanpostua eskuratzen duenak idazkari kontu-hartzailearen eta administrariaren arteko lanak egin beharko ditu. Etxez-etxeko laguntzailearen lehiaketarako balditzak zehazteke daude, baina D zailtasun mailako azterketa izango da. Etxez-etxeko laguntzailearen plaza hutsik dago interina batek lanpostua utzi zuenetik. Gaur egun, aldi baterako langile bat ari da lanpostua betetzen.

Herriz-herri irratsaioa Plazentziatik

Zapatu honetako (hilak 11) herriz-herri, Herri irratiko irratsaioa Soraluzeko herriari eskeina izango da.

Gorritiberea kazetaria informazioa jasotzen ibili da egunotan, eta zenbait herritarrekin eta Udaleko ordezkariekin elkarrizketatu da. Aurreratu digunez, "herri-miña" atalean, Montrealen bizi den Elena Urrestarazu neurologoarekin hitzegingo du; Ana Oregi eta Nerea Lendinezek gizarte zerbitzuen inguruan hitzegingo dute eta gastronomiaren atalean Amaia eta Virginia Aldazabalek. Kale inkestan, herritarrek, herrian estimatzen dutena eta faltan sentitzen dutena adieraziko diote. Bukatzeko, Oscar Gabilondo alkateari egingo dio elkarrizketa. Irratsaioa goizeko 9:30etan hasi eta 11etan bukatuko da.

Sukaldaritza begetarianoa Mahastian

Datorren martxoan, sukaldaritza begetarianoa ikasteko aukera izango da Mahastia Elkartean,



Kutxak eta Udalak antolatutako ikastaroan. Ikastaroak 10 orduko iraupena izango du. M artitzenetan emango dira eskolak, 19:00etatik 21:00etara, martxoaren 7, 14, 21, 28 egunetan eta apirilaren 4an. Interesatuek (15 plaza bakarrik dago) Udaletxean eman dezakete izena.

تذکره شایسته

GAZTELUPE
taberna

tel: 943 75 20 81

تذکره شایسته

IÑAKI IÑARRA
HARATEGI ETA URDATEGIA

Kalebarren 29
Tfnoa 943 75 12 49
Soraluze

Bailarako herrietako aditz bildumak Badihardugurekin



Joan zen eguaztenean egin zuen Badihardugu Euskara Elkarteak (Deba Bailarako herri hizkerak batu eta prestigiatzeko helburua duen elkarteak) urteko Batzar Orokorra San Andres elkartean. Bertan, joan zen urtean egindakoaren balorazioa eta 2006an egingo diren proiektuen berri eman zuten. 2005ean zehar, besteak beste, "Ahozko jarduna hobetzeko proposamenak" ariketa liburuxka eta Eibar eta Oñatiko aditzen bildumak kaleratu ziren. Horrekin batera, Aho-

tsak proiektuaren barruan, Deba bailaran batutako euskalkiaren 642 grabazio klasifikatu (30 Soraluzekoak) eta 3.400 pasarte web orrian zintzilikatu dira. Adindunei egindako grabazioen pasarteok, www.badihardugu.com/ahotsak helbidean daude entzungai. 2006rako, grabazio gehiago egin, webgunea aberastu, beste bi herrietako aditz bildumak argitaratu eta hezkuntza munduan euskalkiaren erabilera indartzeko ahaleginak egitea hartu dute helburutzat.

Debegesa eta M. U.-k berrikuntza bultzatuko dute



Otsailaren 2an Debegesa eta Mondragon Unibertsitateko ordezkariak sinatu zuten hitzarmenaren arabera, Mondragon Unibertsitateak Berrikuntzan egindako ikerketa eta proiektuak bailaran ezartzeko aukerak aztertuko dituzte bi eragileek, Debabarrenako enpresen konpetitibitatea eta berrikuntza hobetzeko asmoz. Unibertsitateko ikasle eta ikasle ohiei ere laguntzak emango zaizkie lan munduan murgil daitezela.

Sabinen fidantza ordaintzen laguntzeko ekimenak

Lagun talde batek antolatuta, ekintza ugari egingo dira datozen asteetan Sabin Mendizabali elkartasuna adierazteko.

Sabin urtarrilaren 19an atxilotu zuen ertzaintzak, eta Madrilgo Auzitegi nazionalan deklaratu ostean, 20.000 euroko bermea ordainduta utzi zuten libre. Dirutza hori ordaintzen laguntzeko ekintza desberdinak antolatu dira. Hilaren 18an musika kontzertua izango da frontoian; dirua etartzeko txosna jarriko da eta kamisetak eta bestelakoak ere salduko dira. Kontzertu honetan Plazentziako zein inguruko herrietako 8 talde hauek joko dute: Supercools, Fly Shit, Atraku, Lindane, K 104, Deja Bú, Brida eta K os jodan. Hurrengo asteetarako hitzaldi desberdinak antolatuko dira, atxilotuen eskubide legalei buruzkoak. Bonolaguntzak ere etarako dira.

Agenda 21eko bilera martitzenean

Hilaren 14an, martitzena, Agenda 21 eko bilera berri bat egingo da Udaletzeko Batzar aretoan, arratsaldeko 18:30etan. Bilera honen helburua ekintza planaren berridazketa zehaztea izango da. Aurrez, herriko egoeraren diagnostikoa eginga zuten Udalak eta Debegesa herriko ikastetxe, industria, merkataria eta zenbait herritarren ekarpenekin. Martitzenean, ekintza planaren berridazketa oinarri hartuta, herritarren ekarpenak jasoko dira. Bilera herritar guztiei zabalik dago.

BELARRAK
Loradenda eta belardenda

San Balentin egunerako eskaerak egiteko **deitu:**
Tel. 943 75 30 11

Telefonia 75 24 09

ARRANO
tabernia

"Giro euskalduna eta sanua"

ETORRI ETA GOZATU

EUSKAL PRESO, DEPORTATU ETA EXILIATUAK

etxera

Elizako lanek luze joko dute

Apirila- maiatz aldean hasiko dira Andra Maria Zeruratze elizako zaharberritze lanak. Barrukaldeko lanak direnez batez ere, itxita egongo da eliza, urtebetez gutxienez. Obra Batzordeko kideek lanei buruzko informazio taulak jarri dituzte ikusgai elizako kapila batean, interesatuei azalpenak emateko (19etako mezaren ostean zapa-tuetan eta 11etako meza ondoren domeketan).

Ondoko lerroetan, zaharberritze lan hauen berri daukazu; orain arte egin diren eta egiteko dauden lanen berri ematen da bertan.



ORAIN ARTE EGIN DIREN LANAK (1999-2004):

- **Kanpandorra konpondu** (209 mila euro): kupula guztian bitarte haundiak zeuden, ura pasatzen lagatzen zutenak. Solte eta gaizki zeuden harriak aldatu, eta tratamendua eman zitzaizen.
- **Zinea bota** (66 mila euro): 50 . hamarkadan elizari atxiki zitzaion Soraluze zinema, 2000. Urtean bota zuen Udalak, egoera larrian zegoen eta.
- **Teilatu berria zineko aldean** (110 mila euro): adoracion nocturnakoe erabiltzen zituzten hiru getako teilatuaren konponketak. Gela hauek, almazen bezala erabiliko dira aurrerantzean.
- **Kapillen teilatu konponketa** (27. mila euro): Zartatuta, eta ormigoian forjautako burdiñak bistan zituzten tetxuak konpondu.
- **Teilatu guztien errebisioa** (22 mila euro): Eliza guztiko teilatuak begiratu eta kaltetutako zatiak konpondu.
- **Hezetasunari aurre egin** (400 mila euro): erdiko postean, lurretik bi metro terdirako alturan, %62ko hezetasuna zegoen (etxe normal baten %12koa dago). Hezetasunik ez dago gaur egun elizan.
- **Atzekaldeko absideko ormigoizko teilatua kendu**, ez baitzen egitura originalekoa. 10 mila euro.

- **Eliz osteko bidea** (100 mila euro): Zinea zegoen solarra eta eliz ostea lotu dituen bidea egin du Udaletxeak.

ARKITEKTUA: Elizondo Donostia-rra 2002. urtera arte, eta Barrutieta Donostiarra ondoren.

GASTUAK DENERA: 1.024.000 euro. Horietatik 467.000 herritarrek jarritakoak. Gainontzekoa diputazioak eta jaurlaritzak. Udalak zinea bota eta elizondoko bideak sortutako gastuez arduratu da.

EGINGO DIRENAK:

Eliza denez, eliz-barrutiko araudia aplikatuko da. Elizaren espazio banaketa berria egin beharra dago, ondo bereiztuz: sedea, amboia eta altarea. Bestalde, elizan dauden irudien gainkarga arinduko da, herriarekin loturarik ez duten santuak (San Francisco, Santa Teresa.) erretiratu eta debozioa zaien beste batzuk (San Blasi, esaterako) mantenduz. San Rokeri ere lekua gordeko zaio bajatzen denerako.

Aurreko guztia kontuan hartuta, proiektuak berak aldaketa hauek dakartza:

- **Barrera arkitektonikoak kendu**, elbarri eta arazoak dituzten pertsona nagusiei trabak kentzeko. 2 maila izango ditu elizako lur zoruak, eskilara eta rampa bitartez bat egingo dutenak.

*Herritarrek
460.000 euro baino
gehiago eman dute
eliza konpontzeko*

DATU HISTORIKOAK

- XIII. gizaldikoak dira elizaren lehenengo aipamenak.
- XVI. Gizaldian Erdiko habiarrea (nabea) egin zen. Herriko bi arginek hartu zuten parte eraikuntzan: Jose eta Andres de Mendiolak.
- 1632an alboetako 2 habiarrea egin zituen Juan de Esnaola Markinarrak.
- 1666an Pedro de Aldazabal Plazentziako tallistak elizataria egin zuen.
- 1686.ean Juan de Aranzeta Elgetarra dorrea egiten hasi zen.
- 1715ean Antonio de Angizarrek koru azpiko arku barrokoa egin zuen.
- 1983an Ignacio de Miguel "Itsasoik" elizataria berriztu zuen.
- 1984an elizataria "Monumento Nacional" izendatu zuten.
- 1999an zaharberritze lan berriak hasi ziren, eta 2007an amaituko dira.

- **Sakristia konpondu** eta txukundu da, gaur egun dagoen leku berean.
- **Sagrarioa, altarera begira ezkerrean jarriko da**, Milagrosako kapilla dagoen tokian. Bertan, orain sakristian dagoen kalbarixoko erretaula jarriko da.
- **Konfesiatarako kapilla**, edo barkadadean otoitz egitekoa, oin animen kapilla dagoen lekuan jarriko da, altarera begira ezkerreko erdiko kapillan. Egurrezko estuktura modernoa eukiko du.
- **Beheko habeartean** (nabean), lur guztian **harri argia jarriko da**.

- **Kantzelak aldatuko dira:** elizara sartzeko dauden bigarren ateak (kantzelak) kendu eta ate zeharrragitsuak jarriko dira, argi naturala irabazteko
- **Amabirginaren erretaularen konponketa:** elizako altxorretako bat. Konponketak 82.218 euroko aurrekontua izango du.
- **Illuminazioa:** argi naturala, ahal denik eta gehien sartzen lagako da, tapauta daren luzernarioak berririkiz. Instalakuntza elektriko guztia berrituko da.
- **Berogailua:** lur zoruak emango du berotasuna, irradiazio bitartez. 2

metro eta erdira ematen du berotasuna. Oso egokia omen da, hankak bero dituenak ez baitu hotzik gorputzean). Koruan ere jarriko da.

- **Megafonia berria** jarriko da.
- **Organoa:** obrak bukatzen diren konponduko da.
- **Elizataria berriz konpondu.**


AURREKONTUA: 1.377.600 euro (200 milioi pela)

DIRU-ITURRIAK: diputazioa, herriari egingo zaion beste eskabide bat (behin obrak hasitakoan) eta kreditua, gotzaintzak abalatu.

ELKARRIZKETA

Abel Olaizola

ELIZAKO LANEN BATZORDEKO KIDEA



Zela sortu zan elizako obra batzordea?

98an egin genduan lehenengo batzarra, Jokinek deituta, eliziak zekazen premiñak ikusi eta komeni ziran lanak egitten hasteko. Harrezkero 7 urte daroiaguz lanian, eta egixa esateko momentu txarrrak pasatu dittugu, ez atzera ez aurrera egon garanak. Aurrera egiteko zera esaten genduan: "jarraitu egin bihar dogu, herrixak diru asko emon dau-eta".

Ze laguntza emon dau herrixak?

70 kilo pasa emon zittuan eta eskerrak emon bihar jakoz. Herrixa danok gara, ez bakarrik elizara juaten diranak; elizara juaten ez dan jente askok emon dau dirua, eta baita herritarra izateke lagundu doskuna. Lan taldetik oroipen bat egittia nahi dogu osasun arazuegaittik taldea laga zebeneri; bereziki, hil jakun Juanito Urrestiri; baita, taldekua izateke, hainbeste lagundu zoskun Alberto Suduperi be, oingo alakatiari eta beste batzuri.

Zelako elizia geratuko da?

Herri guztietan elizia nabarmentzen da, eta gure herrixa oso politta ez danez, elizia behintzat dotore jartzia nahi dogu; plazentziatarrek harro egoteko moduko elizia izatia.

Orain arteko lanetan ezer berezirik gertatu da ala?

Batzuk ez dabe jakingo, baina atetik altareko eskilaretara aldapia dago, 90 zmko desnibela, %4kua. Gure lehenengo asmua desnibela bajatzia zan. Lurrazpizan begira hasi ziran eta 50. hamarkadan ustez kendu zi-

*Herritarrek
460.000 euro baino
gehiago eman zuten
eliza konpontzeko*

ran hazurrak agertu dira. Aranzadikuak 35 milioi eskatu zoskuen arkeologia azterketa bat egitteko. Ez dogu pentsatzen, baina posible izango litzake XIII. gizaldiko aztarnak agertzia. Lanak asko luzatuko lirake eta kostua oso haundixa izango litzake. Lurra ez ikutzia erabaki genduan.

Zeintzuk dira elizako altxorrak?

Elizataixa da daukagun altxorrik haundixena. Euskal Herrixan ez dago holakorik. Penia da zelako astakerixak egiten diran bertan: kaka, txixa, labainekin egurra zulatu, sprayxekin pintadak...eskabide bat egin nahi genduke jentia pixkat kontzientziatzeko.

Amabirgiñian eta kalbarixoko erretauliak be balore artistiko haundixa dake; beste altxor bat koru azpizan dagan arkua da, Gipuzkoan holako gutxi dago. Eta azkenik, organua: gutxi zaindu bada be, adituak organo ona dala esaten dabe, 1910ekua.

Zer egingo da kentzen diran gauzekin?

Inbentariatu egingo dira, eta balorerik daken edo ez ikusi. Batzuk kendu egingo dira eta beste batzuk museo diocesanora bialdu.

Zenbat jente sartzen da elizan eta zenbat beheko kapi-llan?

Elizan jarritta eta zutik 600 bat lagun. Beheko kapi-llan berriz Astebarruan normaian 50 bat lagun elkartzen dira. Elizkizun berezi batzuk, San Blas egunekua esaterako, frontoian edo kiroldegixan egin beharko dira.



Abesbatzakoek txistulariekin urten zuten kantuan. Urtero bezala, Asun eta Mañoak oso ondo hartu zituzten bodegan



Musika eskolako ikasle eta irakasleek herriko kaleak alaitu zituzten. Bertso eskolakoek ere lotsagabe jardun zuten

SANTA AGEDA eta SAN BLASetako argazkiak



Herritar mordoak joan zen San Blas egunean opilak bedeinkatzera. Elizatik urten eta opilari eraso zioten gaztetxoek



Ezozin egin zuten lehenengo geldialdia Santa eskeko taldeak. Ardo goxoa edaneta San Blasak janda aide!

Egitarau betea aratusteetan

Aurten otsailaren 25, 26 eta 28 egunetan ospatuko dira Aratosteak Plazentzian. Zapatua eta martitzena dira egitaraurik beteena dazkaten egunak. Zapatu goiza **buruhaundi eta trikitilariekin** hasiko da. Ondoren, **zirkoa eta argazki erakusketa** izango dira. Arratsaldean musikarien tartea iritsiko da, **Galtzagorri txarangarekin** eta ondorengo Naima taldearen **dantzaldiarekin**. Astelehenean, aratuste-etako **jai mundiala** ospatuko da **Ludotekan**, arratsaldeko 5etatik 8etara. Azken eguna martitzenekoa izango da, eta badira hainbat ekin-tza egun hortarako programatuak: goizean **aratustetako ipuinak** izango dira liburutegian. Arratsaldeko 5etan urteroko **mozorro lehiaketa gaztetxoentzat**. Lehiaketa ostean, **Galtzagorri txarnagak** kaleak alaituko ditu eta iluntzi-gauean **Laiotz taldeak dantzaldia** eskeiniko du Plaza Zaharrean. Atsedendian **helduentzako mozorro lehiaketa** jokatu da.

Bestalde, aipatzekoa da, Galtzagorri txarangak eta Udalak elkarlanean jarduteko kopromezua hartu dutela. Txarangak entsaiotarako lokal bat izango du Ikastola Zaharrean eta emanaldiak eskeintzearen truk diru sari bat jasoko du. Lehen bi emanaldiak aratusteetakoak.

VIDAL

frutadenda

Etxaburueta 2
Tel. 943752055

Kontulan Aholkularitza S.L.

Enpresa aholkularitza
Jabe Elkarteak
Aseguruak

Santa Ana, 13 - 1 ezk. 20590 Soraluze
Tlfonoa: 943 75 17 82 GIPUZKOA

MENDIZABAL

OKINDEGIA

Kalebarren, 10
Telefonoa 943 75 20 91
Baltegieta, 6
Telefonoa 943 75 13 99
SORALUZE

JATETXEA TXURRUKA

SAN IGNACIO AUZOA - TEL. 75 15 81 - SORALUZE

Joxe Amiama PSIKOLOGOA



Adituen esanetan, haurtzaroak asko baldintzatzen ditu pertsonak bere bizitzan zehar izango dituen autoestima sentimentuak. Hori dela eta, Atxolin eta Keixeta guraso elkarteek Joxe Amiama psikologoa ekarri zuten kiroldegiko erakusketa gelara, hilaren 11an. 35 gurasoren aurrean jardun zuen psikologoak, eta seme-alabei autoestima edukitzen laguntzeko gomendioak eman zizkien gurasoei.

Zer da autoestima?

Ongizate sentimentu bat da, bai gure buruarekin eta baita besteekiko (familia, lagunarte, bikote, bizilagun...) harremanetan ere ziurtasuna hartzen laguntzen diguna.

Autoestima altua eduki behar al da?

Autoestima oso altua edukitzea ez da komeni. Nik esango nuke justua eduki behar dela. Horregatik ez da komeni seme-alabei "ai, nere umetxoa, munduko neskarik politena zara" eta antzerako exagerazio irrealik esatea.

Autoestima ikasi egiten al da?

Ez da ikasten, eta sentimentu bat denez, eman ere ez; hartu egiten da. Norbaitek esaten badigu: "poztu zaitez, gizon/andra!", horrek ez gaitu pozten, poztasun sentimenturik ez dugu hartzen. Autoestimarekin gauza bera gertatzen da. Eta beste sentimentuak bezala, autoestima ere, desegin eta berregiten da.

Nola lagunduko diogu umeari autoestima hartzen?

Hiru modutan: lehenengo, umea baloratua sentitu behar da, maitatua eta errespetatua, beste gizaki independente bat bezala. Bigarrenik, berarengan konfidantza dugula erakutsi behar diogu, umeak gauzak egiteko, ikasteko eta hobetzeko gauza dela senti dezan. Eta azkenik, umeari partaide sentitzen lagundu behar diogu: familian, lagunartean edo gizartean.

Zer ez dugu ondo egiten?

Umeari etxekolanak egitea adibi-



"Umeari ez dizkiogu gaizki egin dituenak gogoraraziko, ondo egin dituenak baizik"

dez. Batzutan umea ezinean ikusten dugu eskolako lanak egiten eta us-tez mesede egitearren, guk egiten dizkiogu. Umea argia da eta mezua hartzen du: "ez naiz gauza izan ni bakarrik hau egiteko".

Beste batzutan, gurasoek "izan" aditza erabiltzeko joera dute, normalean umeari zerbait aurpegiratu nahi zaionean: "txarri/zikin/narras/alper/ bat ZARA", eta horrek ez dio umearen autoestimari batere mesederik egiten.

Martiriarena egiteko ohitura ere badago: "nik zuregatik egin dudan guztiarekin, hartu dudan lan guztiarekin" esaten dio amak umeari, "eta horrela ordaintzen didazu?". Amak umea zigortzen du, eta bide batez bere hutsuneak estali.

Zer egin dezakegu hobetzeko?

Etxekolanen kasuan, umea ezinean ikusten badugu, gogoraraziko diogu zela beste egun baten ere ezinean ibili zen eta azkenean lortu zuen berak bakarrik arazoa konpontzea. Beste adibide bat: umea bota zikinekin sartzen bada etxean eta dena zikintzen badu, ez diogu esango "txarri bat zara", baizik eta "etxian ezin da bota zikiñekin ibili".

Eta umea partaide sentidu dadin, oso inportantea da umeak etxekolanetan laguntzea, letxuga garbitzen edo ur bila joaten esaterako. Gauza batzuk gaizki egiten baditu, ez dizkiogu gaizki egindakoak gogoraraziko, ondo egin dituenak aipatu baizik.

Nola hobetu dezakete gurasoek euren autoestima?

Sekula egin ez duten zerbait egiten hasten direnean. Umeek normalean uste izaten dute eurak arraroak direla. Estreinekoz, ama edo aita txorakeriak egiten ikusten badituzte, sukaldean eskoba hartu eta sorgiñarena egiten adibidez, gurasoak ere "arraroak" direla ikusiko dute; horrek asko lagunduko die arraro ez sentitzen.



HNOS. BENITO ANAIAK

ETXEKO ETA SUKALDEKO ALTZARIAK

Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe

Santa Ana, 26 • Tel. y Fax (943) 75 20 47 • 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)

GILA TABERNA

Goizeko 6:30-etatik aurrera zabalik

Gosarixak eta
pintxo
goxo goxuak !!



Errabal kalea 15, Tfnoa 943 75 18 34

Entrenamentu pertsonalizatuak kiroldegian

Kiroldegiko arduradunak entrena- mentu pertsonalizatuak progra- matzen hasiko dira datozen egune- tan, arrazoi desberdinengatik talde- kako ikastaroetara joaten ez dire- nentzat. Ineresatuei elkarriketa pertsonal bat egingo zaie, adina, lanbidea, dituzten beharrak eta zer landu nahi duten jakiteko. Hauek ezagututa, prestatzaile fisikoak programa bat prestatuko du bakoit- zarendako. Hiru eratako planak izango dira: gimnasioko plana, ige- rilekuan fisikoa lantzekoa eta igeri- lekuan teknika lantzekoa. Progra- mazioen prezioa 30-40 euro bitarte- koa izango da eta hauen berriztea 8 eurokoa. Programatzailea argaz- kian ageri den Ivan Teruelo eibarta- rra izango da.



Trintxerpen galdu ostean, 2.a gaur

Galduz ekin zion Sorak joan zen as- tean 1go mailara itzultzeko igoera faseari Trintxerpen. Berdebeltzak 0 eta 2 ko emaitzaz aurreratu baziren ere, San Pedrotarrek partiduari buelta ematea lortu zuten. Bustillok eta Jurgi "Mendatak" sartu ondo- ren, bat eta bikoa lehenengo zatia- ren hondarrean iritsi zen, zoritxa- rreko errebote baten ondoren. Biga-

rren zatian beste bi gol egin zizkio- ten Sorari. Plazentziako espedizioa haserre etorri zen ikusleen presioa- rekin partidutik arbitroa "kikildu" zela- eta bere erabakietan etxeko taldeari lagundu ziola esanez. Zapatuan (11), igoera faseko biga- rren partidua jokatuko du Sorak, Ezozin (16:00etan). Ikasberri talde Azpeitiarra izango dute aurkari.

EMAITZAK

ESKU PILOTA

ATXOTEGI

Udaberri saria

Atxotegi - Portu (Elgoibar)	22
Astiazaran - Yeregi (Soraluze)	8

JAUREGI

Eskuko minez jarraitzen du

LASKURAIN

Capellan - Laskurain	22
Galarza V - Nalda III	8
Galarza V - Laskurain	22
Eugi - Urberuaga	21

FUTBOLA

San Pedrotarra 3 - Soraluze 2 (erreg.)
Sora 7 - Mariño 3 (jub. Kopan)
Urki 1 - Sora 2 (kad. Kopan)

AGENDA

PELOTA

10ean, Urdulizen,
Capellan - Apeztegia
Eugi - Laskurain

13an, Tolosan

Capellan - Barriola
Eugi - Laskurain

FUTBOLA

Igoera faseko 2. neurketa,
Ezoziko zelaian, 16:00etan
Soraluze - Ikasberri

Javier Alonso Zelaleta
K. Z. 20.000.434
Nora Bastida Etxeberria
K. Z. 20.000.736

HORTZ KLINIKA
Errabal 1 - Barrenekoa 2 • Tel. 943 75 16 13

kutxa
gizarte ekintza

ARMENDIA
JATETxea

Ezozu Auzoa, 11
20590 Soraluze
Tfnoa 943 75 10 02

Sukaldaritza tradizionala

aras S.A.L.

DIN arauak jarraituz eta
zehaztasun handiz egindako torniluak

Industrialdea 20-21
50 Posta Kutxatila

Tfnoa 943 75 17 36 - 75 18 03
Faxa 943 75 22 95
20590 Soraluze

Borja Arrieta Zaldi jabea

Barrenetxera heldu eta bertan topatu ditugu Luna eta Borja. Inpresio haundixa egin dosku Lunak. Ez da animalia makala. Adi-adi egon da Borjaren eta gure arteko galde erantzunak entzuten. Baina gustorago geratu da guk ospa egin eta bakian laga dogunian.

Izen Abizena

Borja Arrieta.

Adina?

24 urte.

Zaldiaren izena?

Luna. Honek 5 urte dauzka.

Nundik nora daukazu ba zaldixendako zaletasuna?

Betidanik euki izan dot zaletasuna, eta sarri urten izan dot zaldixan ibiltzera kanpora. Gero, Luna ekarri baino lehenao 2 hilabetian egon nitzan zaldixen inguruko gauzak ikasten, zela zaindu eta holakuak, eta gero ba Luna ekarri neban.

Eta zela zaintzen da ba zaldi bat?

"Seguru sentitzen naiz zaldi gainian. Txarrena menditik motorrak pasatzen diranian izaten da"

Gainian jarri aurretik zepilau egin bihar da eta apatxak garbittu. Bi hilabetero perratu egin bihar da, baina horretarako kanpoko espezializta bat etortzen da.

Jaten zer emoten dotsazue?

Guk konpuestua eta bedarrondua emoten dotsau. Zaldi bakoitzak 3,5 kilo jaten ditte egunian.

Zaldi bat eukitzeko zer bihar da?

Lekua, guk egunian zihar zelaixan eukitzen dittugu eta gero baserrira sartzen ditugu, baina barruan be to kixa dauke.

Zenbat urtian bizi da zaldi bat?

Danetik entzun dot, baina gehixe-



Borja Arrieta zaldiarekin.

nak 20 urte inguru esan doste.

Ze prezio dauke zaldixak?

Danetik, "pura sangriak" oso karuak dira, baina onak bebai. Normal batek 300.000 pezeta gutxigorabehera.

Herrixan ezagutzen dozu zaldi gainian ibiltzen dan besterik?

Oier Cerrejon eta bixok ibili izan gara beti zaldixekin eta batera dauzkau zaldixak, Barrenetxen. Harek nik baino lenao ekarri zeban zaldixa.

Eta nundik nora ibiltzen zarie zaldixakin?

Mendixan ibiltzen naiz asteburutan, batzutan bakarrik eta bestetan Oierrekin.

BERTSO BEGIZ

Animalia izuak dira trostari eta jatunak. Egun gutxitan bihurtu dira Barrenetxeko kuttunak, motorrak baino sanoagoak bizitza propiodunak. Askok ia ikusiko zittuan laister dira ezagunak, mendi gainian ibiltzen dira Sorluzeko zaldunak!

NEKO

Doinua: Aita izena kanta beharrak

Ze bihar da zaldixan ibiltzeko?

Pazientzia! Oso bildurtixak dia eta. Bestela sillia, uhalak, ahokua eta norberak botak.

Inoiz sustorik hartu dozu zaldi gainian?

Ez espezialik. Seguru sentitzen naiz zaldi gainian. Txarrena Menditik motorrak pasatzen dianian izaten da, batzuk azkar pazatzen dia eta zaldixa sustau egitten da, errespetu gehixaokin ibili biharko lirake batzuk.

Amaitzeko, sekula jan dozu zaldi haragirik?

Ez, baina ez neuke problemarik eukiko.



Diseinua eta Sormera

Polígono Amillage, nº 5

Tlf.: 943 76 99 85

20570 BERGARA (Gipuzkoa)

Fax.: 943 76 05 17

Altzairuen fabrikazioa:

- Bainugelak
- Sukaldeak
- Horma-armairuak
- Barruko altzairuak



Garargardoa
eta Kafea

**aukera
ugaria**

943 75 00 30

Argazki zaharra



Iturria: Maribel Zabaleta.

Urbasara 1957an

1957. ean Urbasara joan ziran autobusian Sociedad Deportivakin plaentxiar honak:

Goian zutik: (ezezaguna), Angel Elizburu, Mendoz, Gerardo Ezenarro, Ernesto Lizarralde, Valentin Larrañaga, Marcos Legaristi, (ezezaguna), Karmen Izagirre, Juanita Zabala, Felipe Azkarate, Juan Astiazaran, Modesto Alberdi, Ambrosio Gallastegi, Elbire Iriondo, Maiztegi, Felisa Idigoras, Araceli Arizaga, Juanito Arrieta, Mari Luz Orueta, Ignazio Oregi, Jesus Iraeta, Igone Izagirre, Gerardo Lopez, Felipe Arana.

Behean eserita: Felix Abarrategi, Klemente Baskaran, Anastasio Basauri, Celestina Gallastegi, Jose Zabaleta, Dolores Aldazabal, Enkarna Astiazaran, Maria Jesus Idigoras, Eraklia Maiztegi, Felisa Berroeta, Rosa Mari Suarez, Elisabet Taapken, Rosarito Izagirre, Juanita Olaizola, Felix Onaindia.

Lehiaketa

ORMAZABAL
FISIOTERAPIA ZENTROA

Altos Hornos Industrialdea • Telleria, 6 bis - Of.11 • BERGARA
Tel. 943 76 53 35 / 626 900 608 • ormazabalfisioterapia@yahoo.es

SARIA → Fisioterapia sesio bat!
Ormazabal Fisioterapia Zentruan

HERRIAREN HISTORIA

GALDERA

Zela esaten
zotsen eibartarrak
Plazentziakueri?

→ Hautxerrikuak
→ Xapuerrikuak
→ Ibaikuak

Aukeratu erantzun zuzena.

Deitu **943 75 13 04** ra
edo e-mail bat bidal ezazu:

pilpilean@euskalnet.net

Aurreko aleko erantzuna...

1910. urtian 2.330 biztanle zittuan Soraluze. Hurrengo urtietan etorkin asko etorri zan herrira. 1970. Urtian jo zeban goixa herriko populazioak 5.989 biztanlerekin

Iturria: Ramiro Larrañagaren Monografía Historikoa.

SARIA
Elgetako Espaloia
Kafe Antzokiko
antzerki emanaldirako
3 sarrera.
IRABAZLEA
Teresa Eguren



 **PASCUAL CHURRUGA, S.A.**

Hotzian eta beruan
jotako tornilluak

Telef. 943750006 eta 943751600 Faxa 943752461
E-mail: general@pascualchurruga.com
Errekalde 21 20590 SORALUZE

TXOKO
KAFETEGIA



Kafe ederra hartzeko txokorik onena!

Kalebarren 22 behe, telf: 943751789

BAI ESKOLAK EUSKALDUNTZEARI!



Sinadura bilketa
Recogida de firmas. Recueil de signatures

SUSTATZAILEA: ESKOLAK EUSKALDUNDU EKIMENA

BABESLEAK:



OINARRIAK





LIMPIEZAS TREJO S.L.

Garbiketa Industrialak

Errekalde, 30 behea

Telf.: 943 75 25 57

Fax: 943 75 25 56

20590 SORALUZE

Garbiketa orokorrak

Garbiketa industrialetan espezializatua

Bulego eta lantegien mantenimendua

Makina garbiketak

Garaje garbiketak

Obra amaierak

Marmol eta terrazozen distiratzea

Graffiti garbiketa

Lurzoru handien errazketa eta fregatuak

TXOTX!!!

martxoaren 4an

Hernaniko IPARRAGIRRE
sagardotegira bazkaltzera!!

Autobusa 12etan Gila Zubitik. Buelta 21:00etan



HaRtU TxOtX-OIAtUa!!

M M E E N N U U A

- Bakilau tortila
- Bakilaua frijituta
- Txuleta
- Menbrilloa, gazta eta intxaurreak

ETA SAGARDOA NAHI BESTE!

+ Trikitilarixak + bertsolarixak...

PREZIOA:
Autobusa + bazkaria = 35 €
Bazkidiendako = 30 €

IZENA EMATEKO:
Gila, Gaztelupe eta
Arranoan, edo Pil-pilean
Euskara Elkartera deituta

56
PLAZA
DARE!

